

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: GOMENDIOA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 20koa, adingabeen eta giza duintasunaren babesari buruzkoa eta Europako ikus-entzunezkoen eta online informazioko zerbitzu-industriaren lehiakortasunaren inguruan erantzuteko eskubideari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu horren ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*Recomendación del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de diciembre de 2006, relativa a la protección de los menores y de la dignidad humana y al derecho de réplica en relación con la competitividad de la industria europea de servicios audiovisuales y de información en línea.*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 378/72 de 27/12/2006)

II

EUROPAKO PARLAMENTUA ETA KONTSEILUA

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN GOMENDIOA

2006ko abenduaren 20koa

adingabeen eta giza duintasunaren babesari buruzkoa eta Europako ikus-entzunezkoen eta online informazioko zerbitzu-industriaren lehiakortasunaren inguruan erantzuteko eskubideari buruzkoa

(2006/952/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratata, eta, bereziki, 157. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komiteari aurretiaz kontsulta eginda,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki, ⁽²⁾

Honako hauek kontuan hartuta:

- (1) Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak, aurrerantzean ÇGutunaÈ ⁽³⁾, 1. artikuluan dio giza duintasuna urraezina dela, eta errespetatu eta babestu egingo dela arautzen du. Gutunaren 24. artikulua dio adingabeek babeserako eskubidea dutela, bai eta beren onerako beharrezkoak diren zaintzak izateko eskubidea ere, eta agintari publikoek edo erakunde pribatuek adingabeekin zerikusia duten ekintza

¹ EO C 221, 2005.9.8koa, 87. or.

² Europako Parlamentuaren Irizpena, 2005eko irailaren 7koa (EO C 193 E, 2006ko abuztuaren 17koa, 217. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2006ko irailaren 21ekoa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2006ko abenduaren 12koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea).

³ EO C 364, 2000.12.18koa, 1. or.

guztietan adingabeen interes gorenak lehentasuna izango duela.

- (2) Europar Batasunaren ekimen politikoaren xedeak izan behar du giza duintasuna errespetatzearen printzipioa betetzea, urra ez dadin.
- (3) Ikus-entzunezkoen eta informazioaren zerbitzu guztietako edukiei eta helduentzako soilik egokiak diren saio edo zerbitzuetan adingabeek sarrera mugatzeari dagokienez, nahitaezkoa da Europar Batasunean legezko neurriak ezartzea adingabeen garapen fisiko, mental eta morala babesteko.
- (4) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak etengabe garatzen ari direnez, Erkidegoak lehenbailehen bermatu behar du herritarren interesak eremu horretan erabat eta behar bezala defendatzen direla; eta, horrezaz gain, hedapena askea dela eta informazio-zerbitzuak aske ematen direla bermatzen dela batetik, eta edukiak bidezkoak direla, giza duintasunaren printzipioa errespetatzen dutela eta adingabeen garapen osoa kaltetzen ez dutela bermatzen dela, bestetik.
- (5) Erkidegoak dagoeneko esku hartu du ikus-entzunezkoen eta informazioaren zerbitzuen eremuan, telebistako eta informazioko beste zerbitzu batzuetako saio eta emanaldien zirkulazio askea bermatzeko nahitaezkoak diren baldintzak osatzeko, lehia askearen printzipioa eta adierazpen- eta informazio-askatasunaren printzipioa errespetatuta; baina ezinbestekoa da eremu horretan zehaztasun handiagoz esku hartzea, kontsumitzaileak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

babesteko neurriak hartzeko eta, hala, sexua, arraza edo etnia, erlijio edo sinesmena, ezgaitasuna, adina edo sexu joera dela-eta diskriminaziorako bultzada izan ez dezaten, eta diskriminazio horren aurka borroka egiteko. Neurri horiek kontuan hartu behar dute eskubide indibidualen babesaren eta adierazpen-askatasunaren babesaren arteko oreka, batik bat, gorrotorako edo diskriminaziorako bultzada kontzeptua definitzeko estatu kideek duten ardurari dagokionez, nork bere legeei eta balio moralei jarraiki.

- (6) Kontseiluaren 98/560/EE Gomendia, 1998ko irailaren 24koa, estatuaren bidez ikus-entzunezkoen eta informazioaren zerbitzuen Europako industriaren lehia garatu eta, hala, adingabeen eta giza duintasunaren babesa estatu guztietan alderagarri izateko eta eraginkorra izateko eman zen (1); hori da erkidego mailan sortutako lehendabiziko tresna juridikoa eta, haren 5. kontuan hartuzkoan, publikoari eskaintzen zaizkion informazioko eta ikus-entzunezkoen zerbitzuen inguruan, edozein dela hedabidea, adingabeen eta giza duintasunaren babesari buruzko gaiak lantzen dira. Kontseiluaren 1989ko urriaren 3ko 89/552/EE Zuzentarauaren 22. artikulua, telebista-hedapeneko jardueretarako estatu kideen lege- edo erregelamendu-xedapenak eta xedapen administratiboak koordinatzekoak (2), (CMugarik gabeko telebista-EE Zuzentaru) telebista-hedapeneko jardueretan adingabeen eta giza duintasunaren babesaren gaia berariaz lantzen du.
- (7) Proposatzen da Kontseiluak eta Batzordeak arreta berezia jartzea gomendio hau aplikatzeko, elkarteen arteko akordioak ikuskatzen dituztenean, edo hirugarren herrialdeen arteko lankidetzaprograma berriak negoziatzen edo sinatzen direnean; izan ere, ikus-entzunezkoen eta Interneteko edukien ekoizleak, hedabideak edo hornitzaileak mundu osoak dira.
- (8) 276/1999/EE Erabakiaren bidez (3),

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak urte anitzeko ekintza-plana ezarri zuten erkidegoan, Internet erabiltzerakoan segurtasun handiagoa egon dadin, munduko sareetako eduki bidegabeen eta kaltegarrien aurka borroka eginda, (CEkintza-plana, Interneten erabilera seguruagoa izan dadinE).

- (9) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1151/2003/EE Erabakiaren bidez (4), Interneten erabilera seguruagoa izan dadin ezarritako ekintza-plana bi urtez luzatu zen, eta haren aplikazio-eremua aldatu egin zen, norberaren nazioko alderdi interesdunen artean informazioaren eta koordinazio-lanaren elkartrukea sustatze aldera neurriak eransteko, bai eta herrialde atxikigaiantzat xedapen bereziak ezartzeko ere.
- (10) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 200/31/EE Zuzentarauak, 2000ko ekainaren 8koak, informazioaren gizartearen zerbitzuen zenbait alderdi juridikoei eta, bereziki, barne-merkatuko merkataritza elektronikoiari buruzkoak (5), zenbait kontzeptu juridiko zehazten ditu eta zenbait alderdi adosten ditu, informazioaren gizartearen zerbitzuek etekinak atera ditzaten barne-merkatuaren printzipioetatik. 2000/31/EE Zuzentaruaren zenbait xedapen adingabeen eta giza duintasunaren babesari buruzkoak ere badira, 16. artikuluko 1. paragrafoko e) idatz-zatia, hain zuzen; horren arabera, estatu kideek eta Batzordeak, adingabeen eta giza duintasunaren babesaren alorrean, portaerakodeak egitea sustatu behar dute.
- (11) Komunikabideen egoera etengabe aldatzen ari da, teknologia berrien eta komunikabideen berrikuntzen eraginez, beraz, nahitaezkoa da haurrei irakastea, bai eta horien gurasoei, irakasleei eta hezitzaileei ere, ikus-entzunezkoen zerbitzuak eta online informazioa modu eraginkorrean erabiltzen.
- (12) Oro har, ikus-entzunezkoen sektoreak bere burua arautzea bide osagarri eraginkorra da, baina ez da nahikoa adingabeak eduki kaltegarrietatik babesteko. Adierazpen-askatasuna eta herritarren eskubideekiko

¹ EO L 270, 1998.10.7koa, 48.or.

² EO L 298, 1989.10.17koa, 23. or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 97/36/EE Zuzentarauak aldatu zuen Zuzentaru (EO L 202, 1997.7.30koa, 60. or.).

³ 276/1999/EE Erabakia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 1999ko urtarrilaren 25koa, komunitate-ekintzako urte anitzeko plana onartu zuena, Internet erabiltzerakoan segurtasun handiagoa egon dadin, munduko sareetako eduki bidegabeen eta kaltegarrien aurka borroka eginda. (EO L 33, 1999.2.6koa, 1. or.).

788/2004/EE Erabakiak aldatu zuen azken aldiz Erabakia (EO L 138, 2004.4.30koa, 12. or).

⁴ 1151/2003/EE Erabakia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2003ko ekainaren 16koa, 276/1999/EE Erabakia aldatu zuena, komunitate-ekintzako urte anitzeko plana onartzeko, Internet erabiltzerakoan segurtasun handiagoa egon dadin, munduko sareetako eduki bidegabeen eta kaltegarrien aurka borroka eginda. EO L 162, 2003.7.1koa, 1.or.

⁵ EO L 178, 2000.7.17koa, 1.or.

errespetua oinarri duen ikus-entzunezkoen eremua garatzeko European, beharrezkoa da estatuetako eta Europako legegileen, agintari araugileen, sektoreko industrien, elkarteen, herritarren eta gizarte zibilaren arteko etengabeko elkarriketa.

- (13) 89/552/EEE Zuzentaraua, telebista-hedapeneko jarduerak gauzatzeko estatu kideen lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapen jakin batzuk koordinatzeari buruzkoa ⁽¹⁾ aldatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1997ko ekainaren 30eko 97/36/EE Zuzentaruari buruzko kontsulta publikoa egin zen. Kontsulta horretan, proposatzen zen 98/560/EE Gomendioaren bidez landutako gaien artean beste bat gehitzea, komunikabideei buruzko alfabetizazioarekin zerikusia duten neurriak hartzeko beharra, hain zuzen ere.
- (14) Ikus-entzunezkoetako edukiak, edozein dela hedabidea, sailkatzeaz arduratzen diren gaur egungo erakunde autoerregulatzailerik zein koerregulatzailerik artean lankidetzaz izatea eta esperientziak eta praktika onak elkartrukatzea sustatzen du Batzordeak, eta hau da helburua: erabiltzaile guztiek —baina, batez ere, gurasoek, irakasleek eta hezitzaileek— ikus-entzunezkoen zerbitzuetako eta online informazioko eduki bidegabeak salatu eta ebaluatu ahal izatea, bai eta adingabeen garapen fisikoa, mentala edo morala kalte dezaketean bidezko edukiak ere.
- (15) 97/36/EE Zuzentaruari buruz egidako kontsultan agerian geratu zen komenigarria dela erantzuteko eskubidea edo beste baliabide baliokide batzuk online-komunikabide guztiei aplikatzea, eta kontuan hartu behar direla komunikabide horien eta zerbitzu horien ezaugarriak.
- (16) Kontseiluaren 1995eko urriaren 5eko Ebazpenak, Emakumezkoen eta gizonezkoen irudia publikitatean eta komunikabideetan erabiltzeko moduari buruzkoak ⁽²⁾, estatu kideei eta Batzordeari proposatzen die beharrezkoak diren neurriak hartzeko, horien bidez emakumezkoek eta gizonezkoek gizartearen dituzten aukeren eta gaitasunen irudi dibertsifikatua eta benetakoa sustatzeko.
- (17) Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko eta horiek eskaintzen dituzten prestazioetan gizonen eta emakumeen arteko tratu-

berdintasun printzipioa aplikatzeari buruzko Kontsiluaren zuzentarau-proposamena aurkeztu zuenean, Batzordeak adierazi zuen komunikabideetan eta publikitatean sexualorrean erakusten den irudiak auzi handiak eragiten dituela, gizonezkoen eta emakumezkoen duintasuna babesteari buruzko auziak. Baina erabaki zuen, beste oinarriko eskubide batzuk — komunikabideen askatasuna eta aniztasuna, bereziki— ez urratzeko, ez litzatekeela egokia izango gai horiek proposamenean lantzea. Hala ere, adierazi zuen horiek aintzat hartzen zituela eta, beharrezkoa izanez gero, neurri egokiak hartuko zituela.

- (18) Komenigarria da estatu kideetako ikus-entzunezkoen eta online informazioaren zerbitzuen sektoreari proposatzea, sexu, arraza edo etnia, erlijio edo sinesmena, ezgaitasuna, adina edo sexu-joera dela eta, diskriminazio-mota guztiak bazter ditzatela eta horiei aurre egin diezaiotela komunikabide guztietan eta publikitate-mezu guztietan, publikitate-teknika berriak barne, iritzi- eta prentsa-askatasuna urratu gabe, betiere.
- (19) Gomendio honek kontuan hartu ditu aurrerapen teknologiko berriak, eta 98/560/EE Gomendioaren osagarri da. Aplikazio-eremuari dagokionez, aurrerapen teknologikoak direla eta, sare elektronikoen edo eramangarrien bidez publikoaren esku jartzen diren ikus-entzunezkoen eta online informazioaren zerbitzuak hartzen ditu bere baitan.
- (20) Gomendio honek ez die estatu kideei inolako oztoporik jartzen beren konstituzio-xedapenak eta bestelako lege-xedapenak ezartzeko, ez eta adierazpen-askatasunaren alorrean orain arteko praktika juridiko berarekin jarraitzeko ere.

GOMENDIOAK:

I. Estatu kideei, ikus-entzunezkoen eta online informazioaren zerbitzuetako sektorearen garapena sustatze aldera, adingabeen eta giza duintasunaren babesa bermatzeko nahitaezkoak diren neurriak ezartzea, ikus-entzunezkoen eta online informazioaren zerbitzu guztietan, honako hauen bitartez:

1. beren araudietan edo estatuko jardueretan, online komunikabideen inguruan erantzuteko eskubidea edo beste bide baliokide bat ezartzeko aukera aztertu. Horretarako, behar bezala kontuan hartzen dituztela nork bere estatuko eta konstituzioko lege-xedapenak, eta jarduera horiek komunikabide-mota bakoitzaren berezitasunetara egokitzea

¹ EO L 202, 1997.7.30ekoa, 60.or.

² EO C 296, 1995.11.10ekoa, 15. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

aukerari kalterik egin gabe;

2. garapen teknologikoari egokitzea errazteko, eta neurri juridikoez edo irratidifusioko zerbitzuen inguruan dauden beste batzuek gain, eta horiekin bat datozen eta interesa duten alderdiekin batera ezarriko diren honako hauek sustatu:

- a) ikus-entzunezkoen eta online informazioaren zerbitzuak adingabeek behar bezala erabiltzeko ekintzak; hain zuzen ere, gurasoak, irakasleak eta hezitzaileak gehiago sentsibilizatuta zerbitzu berrien eraginari buruz eta adingabeen babeserako bitarteko egokiei buruz eta, horretarako, bereziki programa hauek erabiliz: komunikabideen inguruko alfabetizazioari buruzko programak edo komunikabideen inguruko heziketari buruzko programak eta, esate baterako, eskolako irakaskuntzaren esparruko etengabeko formazioaren bidez;
- b) beharrezkoa eta egokia denean, adingabeentzat kalitatezko edukiak eta zerbitzuak eta horiek eskura edukitzeko modua hautematen laguntzeko ekintzak; besteak beste, hezkuntza-erakundeetan eta toki publikoetan sartzeko bitartekoak jarrita;
- c) Internetek eskaintzen dituen aukerei buruz herritarrak hobeto informatzeko ekintzak;

II. eranskinean, komunikabideen inguruan alfabetatzeari buruzko zenbait ekintzen adibideak ematen dira.

3. komunikabide berrietan —esaterako, Interneten— aritzen diren profesionalen, bitartekarien eta erabiltzaileen jarrera arduratsua sustatu; horretarako:

- a) ikus-entzunezko eta online informazioko zerbitzuetako sektorea bultzatuko da, sexua, arraza edo etnia, erlijio edo sinesmena, ezgaitasuna, adina edo sexu-joera direla-eta diskriminazio-mota guztiak baztertzera eta horien aurka borroka egitera, iritzi- eta prentsa-askatasuna urratu gabe;
- b) sustapen jarduerak burutuko dira, bidegabetzat hartzen diren orrialdeak zaintzen eta salatzen direla ziurtatzeko, 2000/31/EE Zuzentarauak ezarritakoa oztopatu gabe;
- c) jokabide-kode bat osatuko da, estatu eta Europa mailako profesionalak eta agintari

araugileak batera arituta eta adostuta;

4. neurriak sustatuko dira, Interneten adingabeentzako kaltegarriak diren jarduera bidegabe guztiei aurre egiteko eta sarea askoz ere seguruagoa izateko; besteak beste, neurri hauek har daitezke:

- a) hornitzaileei kalitate-etiketa bat jarraraztea, edozein erabiltzailek berehala jakin dezan hornitzaileak bat egin duen jokabide oneko kodearekin;
- b) bitarteko egokiak ezartzea, Interneten jarduera bidegabeak eta/edo susmagarriak salatzen.

II. Ikus-entzunezko eta online informazioko zerbitzuetako sektoreari eta interesa duten gainerako alderdiei:

1. adingabeen onerako neurri positiboak garatu; horien artean, ikus-entzunezko eta online informazioko zerbitzuetarako sarrera erraztuko dien ekimenak eta, era berean, kaltegarriak izan daitezkeen edukiak galarazten dituztenak, edukiak bereizteko sistemak jarrita, esaterako. Neurri horiek harmonizazioa izan dezakete beren baitan, estatu kideetako erakunde erregulatzaileen, autoerregulatzaileen eta koerregulatzaileen arteko lankidetzaren bitartez eta praktika egokienak elkartrukatuta; besteak beste, honako hauei buruzko praktikak: ikur deskribatzaileen sistemaren bati buruzkoak, edo adin-tartea adierazten duten ohar-mezu komunei eta/edo adin-tarte jakin bat gomendatzeko bide eman duen edukiaren alderdiei buruzkoak; izan ere, hala, ikus-entzunezko eta online informazioko zerbitzuetako edukia ebaluatzeko lagungarria izango litzateke erabiltzaileentzako. Hori guztia lortu ahal izango litzateke, besteak beste, III. eranskinean adierazitako ekintzen bidez;
2. giza duintasunaren aurka egin dezaketen edukiak Interneten egon ez daitezzen iragazkiak edo bereizketa-sistemak ezartzeko aukera aztertu;
3. Internet bidez eskaintzen den materialarentzako eduki-etiketen sistemak gehiago erabiltzeko neurriak ezarri;
4. ikus-entzunezko eta online informazioko zerbitzuetan, sexua, arraza edo etnia, erlijio edo sinesmena, ezgaitasuna, adina edo sexu-joera dela-eta diskriminazio-mota guztiak baztertzeko eta horren aurka borroka egiteko tresna egokiak aztertu, eta, halaber, gizona-entzunezko eta emakumezkoak gizartean

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

dituzten aukeren eta gaitasunen irudi dibertsifikatua eta errealista sustatzen duten tresnak aztertu.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea
J. BORRELL FONTELLES

AINTZAT HARTZEN DUTE, BATZORDEAK ASMO HAUEK DITUELA:

Kontseiluaren izenean
Presidentea
J.KORKEAOJA

1. Europako herritarrak informatzeko ekintzak sustatzeko asmoa, komunikabide guztiak erabilia, iritzi publikoa gai hauetaz informatzeko: Internetek dituen alde onak eta izan ditzakeen arriskuak, sarea behar bezala eta segurtasun osoz erabiltzeko modua, erreklamazioak egiteko modua eta gurasoek kontrolatzeko modua; hori guztia, Europako urte anitzeko programaren barruan (2005-2008), Internet eta online teknologia berriak seguruago erabiltzeko bideratutakoan. Zenbait talderentzako berariazko kanpainak ere egin daitezke; esaterako, ikastetxeentzat, guraso-elkarteentzat eta erabiltzaileen elkarreentzat;
2. doako telefono-zerbitzu europarra jartzeko aukera edo orain dagoen zerbitzua sendotzeko aukera aztertzeke asmoa, Internet erabiltzen dutenei laguntzeko, eta, horrela, erreklamazio-mekanismoez eta informazioa lortzeko eskura dauden baliabideei buruz informatzeko, eta eskura dauden iragazteko edo bereizteko informatika-programen eraginkortasunari buruz gurasoak informatzeko;
3. bigarren maila generikoko domeinu-izen bat abian jartzen laguntzeko aukera aztertzeke asmoa, adingabeak eta horien eskubideak errespetatzeko konpromisoa hartzen dutenentzako bakarrik; esaterako, KID.eu;
4. eduki-hornitzaileen erakundeekin, kontsumitzaileen erakundeekin eta interesa duten alderdi guztiekin elkarriketa emankorrek izaten jarraitzen du;
5. erakunde auto-erregulatzailen sareak eratzen laguntzeko eta bultzatzeko asmoa du, bai eta esperientziak elkarren artean truka ditzaten laguntzeko eta bultzatzeko ere, jarrera-kodeen eraginkortasuna eta nork bere burua arautzean oinarritutako ikuspegiak ebaluatzeke, eta, hartara, adingabeak babesteko arauak zorrotzak izan daitezke bermatzeko;
6. estatu kideek emandako informazioa kontuan hartuta, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari txosten bat aurkezteke asmoa, hain zuzen, Gomendio honetan deskribatutako neurrien aplikazioari eta eraginkortasunari buruzko txostena; horretaz gain, Gomendio hau berrikusteko asmoa du, horretarako beharra sortuz gero.

Bruselan, 2006ko abenduaren 20an.

ESTATUETAKO ARAUDIETAN EDO JARDUNBIDEETAN NEURRIAK APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK, ONLINE KOMUNIKABIDEEN INGURUAN ERANTZUTEN ESKUBIDEA EDO BESTE BIDE BALIOKIDEREN BAT BERMATZEKO

Helburua: Estatu kideetako araudietan edo haien jardueretan, online komunikabideen inguruan erantzuteko eskubidea edo beste bide baliokide bat bermatzeko neurriak ezartzea, behar bezala kontuan hartzen dituztela nork bere estatuko eta konstituzioko lege-xedapenak eta komunikabide-mota bakoitzaren berezitasunekiko jardueretara egokitzeak aukera oztopatzen ez dela.

«Komunikabide» hitzak online editatzen den informazioa publikoari helarazteko erabilitako edozein komunikabideri egiten dio erreferentzia; esaterako, egunkariak, aldian aldiko argitalpenak eta Internet oinarri duten irratia- eta telebista-berrien zerbitzuak.

Estatu kideek ezarritako xedapen zibilei, administratiboei edo penalei kalterik egin gabe, pertsona fisiko edo juridiko guztiek, edozein dela nazionalitatea, izan beharko lukete erantzuteko eskubidea edo beste bide baliokideren bat, argitalpen edo hedabideren batean, ohore eta izen onaren inguruko legezko interesak, bereziki, baina ez horiek bakarrik, urratzen badira gertaeren baten berri emateagatik. Estatu kideek zaindu egin beharko lukete erantzuteko eskubidea edo beste bide baliokideren bat erabiltzeko eskubidea benetan eraginkorra dela, eta, hortaz, ez dira horretarako baldintza edo betebeharrak gehiegi jarri behar.

Online komunikabideen inguruan, erantzuteko eskubide edo beste bide baliokideren bat egon beharko litzateke estatu kideen jurisdikziopean.

Estatu kideek behar adina xedapen ezarri beharko litzateke erantzuteko eskubidea edo beste bide baliokideren bat edukitzeko eta hura erabiltzeko prozedura zehazteko. Bereziki, zaindu beharko lukete epe nahikoa egon dadin eta beste estatu kide batzuetan bizi diren edo finkatuta dauden pertsona fisikoek edo juridikoek erantzuteko eskubidea edo beste bide baliokideren bat erabiltzeko moduko modalitateak egon daitezkeen.

Erantzuteko eskubidea legearen bidez bermatzeaz gain, koerregulazio- edo autoerregulazio-neurriekin ere bermatuko da.

Erantzuteko eskubidea baliabide bereziki egokia da online inguruan; izan ere, aukera ematen du ezeztu nahi den informazioari berehala erantzuteko eta, teknikari dagokionez, erraza da erantzunak txertatzea. Dena dela, erantzuna zentzuzko epe batean eman beharko da eskaera arrazoitu ondoren, eta unea eta modua ere egokiak izango dira, eskaera dagokion argitalpen edo hedabidearekiko.

Zenbait prozedura ezarri beharko lirateke erantzuteko eskubidea edo beste bide baliokideren bat erabiltzerakoan gerta daitezkeen eztabaidak auzitegiek edo antzeko erakunde independenteren batek aztertu ahal izan ditzaten.

Erantzuteko eskubidea edo beste bide baliokideren bat erabiltzeko eskaera atzera bota ahal izango da, eskatzaileak legezko interesik ez badu erantzuna argitaratzeko, edo ekintza zigorgarriren bat eragiten badu, edo eduki-hornitzaileari prozedura zibilen bat edo ohitura onen aurkako prozeduraren bat abian jarraraztea eragiten badio.

Erantzuteko eskubideak ez die kalterik egingo pertsonak eskura dituzten gainerako baliabideei, duintasun, ohore, izen on edo bizitza pribaturako duten eskubideak komunikabideren batek urratzen dituen kasuetarako.

II. ERANSKINA

Komunikabideen alfabetzeari buruz abian jar daitezkeen zenbait ekintzen adibideak

- a) irakasleentzako eta formatzaileentzako etengabeko prestakuntza, bai eta haurrak babesteko dauden elkarreentzako ere, eskola-ikaskuntzaren esparruan Internet sarearen erabilerari buruz; horrela, Internetek eragin ditzakeen arriskuen inguruan sentsibilizazioa izaten jarraitzeko, arreta berezia jartzen dutela solasaldi elektronikoen eta foroen eremuetan;
- b) Interneti buruzko berariazko prestakuntza ezartzea haurrentzat txiki-txikitatik, gurasoek ere parte hartuko duten zenbait saio antolatuta;
- c) komunikabideei buruzko ikuspegi hezitzaile integratua, ikastetxeetako ikasketa-planetan eta alfabetatze-programetan eransteko eta, hala, Internet zentzuz erabiltzeko informazioa izan dezaten;
- d) Internet zentzuz erabiltzeari buruzko informazioa herritarrei helarazteko kanpainak antolatu estatuetan, komunikabide guztiek parte hartzen dutela; ;
- e) Internetek eragin ditzakeen arriskuei buruzko informazio-orriak banatu («Interneten segurtasun osoz nabigatzeko moduak», «jaso nahi ez diren mezuak iragazteko moduak») eta telefonoz laguntzeko zerbitzuak sortu, eduki kaltegarriak edo bidegabeak buruzko salaketak edo erreklamazioak egin ahal izateko;
- f) zenbait neurri, telefonoz laguntzeko zerbitzuak ezartzeko edo horien eraginkortasuna hobea izateko, erreklamazioak aurkeztea errazagoa izateko eta eduki kaltegarriak edo bidegabeak salatu ahal izateko.

III. ERANSKINA

Adingabeen onerako industrietan edo interesa duten alderdiek abian jar ditzaketen ekintzen adibideak

- a) erabiltzaileei sistematikoki sistema eraginkorra eskaini, eguneratzeko modukoa eta erabilerraza, sarbide-hornitzailearen batean izena ematen dutenerako;
- b) berariaz haurrentzako diren zerbitzuetarako sarbidea eskaini, sarbide-hornitzaileek eta sakelako telefonoen hornitzaileek egindako iragazte-sistema automatikoak dituztela;
- c) sustapen-neurriak sortu, eskura dauden guneen buruzko deskripzio eguneratua eskaintzeko, guneak sailkatzea eta horien edukia ebaluatzea errazagoa izan dadin;
- d) Internet zentzuz erabiltzeari buruzko informazioa eta telefonoz laguntzeko zerbitzuei buruzko informazioa eskura dagoela jakinarazteko pankartak jarri bilatzaileetan.